

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

DEBAKO UDALA

Udalerrian, Itziarko Tokiko Entitate Txikiaren lur eremutik kanpo, eragina izango duten kultur programak edo jarduerak antolatzen dituzten irabazi asmorik gabeko herriko elkarteei eta pertsona fisikoei zuzendutako dirulaguntzen 2025eko deialdia.

Debako alkateak 2025eko apirilaren 30ean honako Dekretua sinatu du:

— 213/2025 Alkatetzaren Dekretua.

Udalbatzak onartutako eta 2021eko maiatzaren 28ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ziren Debako udalerrian, baina Itziarko Toki Entitate Txikiaren lur eremutik kanpo, kultur programak edo jarduerak egiten dituzten Deban errolatutako irabazi-asmorik gabeko pertsona fisikoei eta tokiko kultur elkarteei zuzendutako dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileekin bat etorri, bidezkoa da dirulaguntzen 2025. urteko deialdia onartzea.

Horiek horrela, indarrean dagoen araudiak ematen dizkidan eskumenak erabiliz,

EBAZTEN DUT

Lehen. Onartzea Debako udalerrian, baina Itziarko Toki Entitate Txikiaren lur eremutik kanpo, kultur programak edo jarduerak egiten dituzten Deban errolatutako irabazi-asmorik gabeko pertsona fisikoei eta tokiko kultur elkarteei zuzendutako dirulaguntzen 2025. urteko deialdia. Dekretu honen eranskinean jasotzen dira deialdi honen xehetasunak.

Bigarren. Baimentzea hogeita bost mila euroko (25.000,00 €) gastua deialdiari aurre egiteko, 1.0300.481.330.00.01.2025 aurrekontu partidaren kargura.

Hirugarrena. Argitaratzea deialdi hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, Udal iragarki taulan eta Udal webgunean.

Ebazpen hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Horren aurka, zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu daiteke Donostiako Administrazioarekiko Auzietako epaitegietan, jakinarazpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean. Hala ere, interesdunek aukera dute horren aurretik berraztertze hautazko errekurtsua aurkezteko alkate honi, jakinarazpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hala eginez gero, ezin izango da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu berraztertze berariaz ebatzi edo us-tezko ezespena gertatzen den arte. Hori guztia bidezkotzat jotzen den beste edozein errekurtsu jartzearen kalterik gabe.

Denek jain dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da hau.

Deba, 2025eko apirilaren 30a.—Jose Luis Salaberri Iñarra, udal idazkaria. (3316)

AYUNTAMIENTO DE DEBA

Convocatoria 2025 de ayudas a las asociaciones locales culturales sin ánimo de lucro y personas físicas que lleven a cabo programas o actividades culturales que tengan incidencia en el municipio, salvo en el ámbito de la Entidad Local Menor de Itziar.

La alcaldesa de Deba el 30 de abril de 2025 ha dictado el siguiente Decreto:

— Decreto de Alcaldía 213/2025.

De conformidad con las bases reguladoras para la concesión de ayudas económicas a las asociaciones locales culturales y personas físicas sin ánimo de lucro, domiciliadas en Deba, que lleven a cabo programas o actividades culturales que tengan incidencia en el municipio de Deba, salvo en el ámbito de la Entidad Local Menor de Itziar, aprobadas por el Pleno y publicadas en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de 28 de mayo de 2021, resulta procedente aprobar la convocatoria correspondiente al año 2025.

Por lo expuesto, en ejercicio de las competencias que me atribuye la normativa vigente,

RESUELVO

Primero. Aprobar la convocatoria correspondiente al año 2025 de ayudas económicas a las asociaciones locales culturales y personas físicas sin ánimo de lucro, domiciliadas en Deba, que lleven a cabo programas o actividades culturales que tengan incidencia en el municipio de Deba, salvo en el ámbito de la Entidad Local Menor de Itziar, en los términos recogidos en el anexo del presente Decreto.

Segundo. Autorizar un gasto por importe de veinticinco mil euros (25.000,00 €) para hacer frente a la convocatoria, con cargo a la partida presupuestaria 1.0300.481.330.00.01.2025.

Tercero. Publicar la presente convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y en la web municipal.

La presente resolución es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Contra la misma se podrá interponer directamente recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de su notificación. No obstante, las personas interesadas podrán interponer con carácter previo recurso potestativo de reposición ante esta Alcaldía en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su notificación. En tal caso, no podrá interponerse recurso contencioso-administrativo hasta que se resuelva expresamente el de reposición o se produzca la desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime procedente.

Lo que se hace público para general conocimiento y efectos oportunos.

Deba, a 30 de abril de 2025.—El secretario, Jose Luis Salaberri Iñarra. (3316)

213/2025 ALKATETZAREN DEKRETUA

ERANSKINA

Debako udalerrian, baina Itziarko Toki Entitate Txikiaren lur eremutik kanpo, kultur programak edo jarduerak egiten dituzten Deban erroldatutako irabazi-asmorik gabeko pertsona fisikoei eta tokiko kultur elkartei zuzendutako dirulaguntzen 2025eko deialdia.

1. Xedea.

2025eko deialdia egitea, lehia-konkurrentziaren araubidean, Deban helbideratuta dauden eta irabazi-asmorik ez duten kultur elkarte edo entitatei zein pertsona fisikoei diru-laguntzak emateko, Deban kultur programak edo jarduerak garatu eta egiteko, bereziki oinarri arautzaileen 1. oinarrian jasotako diru-laguntzen ildoetan.

2. Onuradunak.

Deialdi honen xede diren diru-laguntzen onuradun izan ahalko dira Debako udalerrian (Itziarko toki-erakunde txikiaren eremuan izan ezik) eragina duten kultura-programak edo -jarduerak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko pertsonak eta entitateak, oinarri arautzaileen 3. oinarrian jasotako baldintzak betetzen badituzte.

3. Eskaerak.

Eskaerak aurkezteko epea hogeita hamar (30) egun naturala izango da, deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Eskabideak oinarri arautzaileen 5. oinarrian aurreikusitako moduan aurkeztuko dira.

4. Aurrekontu zuzkidura.

Deialdiari aurre egiteko aurrekontu-zuzkidura hogeita bost mila eurokoa da (25.000,00 €), 1.0300.481.330.00.01.2025 aurrekontu-partidaren kargura.

5. Klausula gehigarria.

Deialdi honetan aurreikusi ez den guztirako, zuzenean aplikatuko da Udalbatzak onartutako eta 2021eko maiatzaren 28ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ziren Debako udalerrian, baina Itziarko Toki Entitate Txikiaren lur eremutik kanpo, kultur programak edo jarduerak egiten dituzten Deban erroldatutako irabazi-asmorik gabeko pertsona fisikoei eta tokiko kultur elkartei zuzendutako dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileetan jasotakoa.

DECRETO DE ALCALDÍA 213/2025

ANEXO

Convocatoria 2025 de las ayudas económicas a las asociaciones locales culturales y personas físicas sin ánimo de lucro, domiciliadas en Deba, que lleven a cabo programas o actividades culturales que tengan incidencia en el municipio de Deba, salvo en el ámbito de la Entidad Local Menor de Itziar.

1. Objeto.

Convocar para el año 2025 en régimen de concurrencia competitiva, la concesión de ayudas económicas a las asociaciones o entidades culturales y personas físicas, que no tengan ánimo de lucro, domiciliadas en Deba para el desarrollo y realización de programas o actividades culturales en Deba, especialmente en las líneas de subvención recogidas en la base 1.ª de las bases reguladoras.

2. Personas y entidades beneficiarias.

Podrá ser beneficiarias de las subvenciones la personas y entidades sin ánimo de lucro que lleven a cabo programas o actividades culturales que tengan incidencia en el municipio de Deba (salvo en el ámbito de la Entidad Local Menor de Itziar), y cumplan los requisitos recogidos en la base 3.ª de las bases reguladoras.

3. Solicitudes.

El plazo para presentar solicitudes será de treinta (30) días naturales a contar desde el siguiente al de la publicación de la convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Las solicitudes de presentarán en la forma prevista en la base 5.ª de las bases reguladoras.

4. Dotación presupuestaria.

La dotación presupuestaria para hacer frente a la convocatoria asciende a veinticinco mil euros (25.000,00 €), con cargo a la partida presupuestaria 1.0300.481.330.00.01.2025.

5. Cláusula adicional.

Para todo aquello no previsto en la presente convocatoria se aplicará directamente lo establecido en las bases reguladoras para la concesión de ayudas económicas a las asociaciones locales culturales y personas físicas sin ánimo de lucro, domiciliadas en Deba, que lleven a cabo programas o actividades culturales que tengan incidencia en el municipio de Deba, salvo en el ámbito de la Entidad Local Menor de Itziar, aprobadas por el Pleno y publicadas en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de 28 de mayo de 2021.